

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduerak hozkailu adimendunaren eta harekin lotutako aplikazioaren garapena, integrazioa eta etengabeko hobekuntza dira. Jarduera hauek ezinbestekoak dira gure proposatutako balioa sortu, entregatu eta mantentzeko.

Lehenik eta behin, hardwarearekin lotutako jarduerak nabarmentzen dira. Hozkailuan txertatuko diren sentsoak, kamerak, pantaila interaktiboa eta bozgorailuak behar bezala hautatu, integratu eta probatzea funtsezkoa da. Horretarako, marka ezagunekin (Bosch, Samsung...) kolaborazioa kudeatzen dugu, kalitatezko hozkailuak erabiliz eta gure aplikazioa haien hardware-ezaugarrietara egokituz.

Gainera, gure hozkailu adimenduna salmenta-kanal fisiko handien bidez merkaturatuko dugu, hala nola **Alcampo, Carrefour, El Corte Ingles, Eroski** edo antzeko supermerkatu handietan, erabiltzaileek produktua erraz ezagutu, ikusi eta erosteko aukera izan dezaten. Banaketa-estrategia honek produktuaren ikusgarritasuna handituko du eta bezeroengana modu zuzen eta fidagarrian iristea ahalbidetuko du.

Bestalde, software adimendunaren garapena da gure jarduera nagusietako bat. Aplikazioak sentsoak eta kameretatik jasotako datuak prozesatu behar ditu, honako funtzioak bermatzeko:

- Erosketen zerrenden sorrera automatikoa
- Elikagaien iraungitze-daten kontrola
- Menu eta errezeta pertsonalizatuen proposamena
- Dieta, kontsumo eta aurrekontuaren kudeaketa

Horrez gain, erabiltzaile-esperientziaren diseinua ere funtsezko jarduera da. Pantaila interaktiboa, ahots-interakzioak ditu, sistema erabilerraza, intuitiboa eta erabilerraza izatea bermatzen dugu, ikusmen-urritasuna duten pertsonentzat ere egokia izan dadin.

Azkenik, mantentze-lanak, eguneraketak eta datuen segurtasuna kudeatzea ere gure jarduera giltzarrietako bat da, sistemaren fidagarritasuna eta erabiltzaileen konfiantza bermatzeko.

Laburbilduz, gure funtsezko jarduerak hardwarearen integrazioa, software adimendunaren garapena, marka estrategikoekin lankidetzat eta erabiltzaile-esperientzia pertsonalizatuaren optimizazioa dira, guztiak batera erosketak errazteko eta elikagaien kudeaketa eraginkorragoa eta jasangarriagoa eskaintzeko.